

‘2018: Utopia bat espazioan’. Etorkizunari begira ospatuko du Hala Bedi 35. urteurrena

2018 | Etorkizuna ospatzeko urtea

- **Apirilean | [Gasteizko Gaztetxearen urtemugan](#)** parte hartuko du Hala Bedi, apirilaren 9tik 15era antolatuko den ‘Autogestioaren Astea’, okupazioa eta autogestioa lantzen duten beste eragileekin elkarlanean: Errekaleor Bizirik, SUMendi, GES, Arkillos, Auzolana Pilotalekua...
- **Maiatzean | Gala Bedi & Hala Bedi Sariak.** Halabelarriekin zein herri mugimenduekin elkartzeko eta eskerrak emateko, jai giroan ospatuko dugu Hala Bedi Sarien banaketa, urteroko Hala Bediren ekitaldi publikoa izatea nahi dugun gala honetan.
- **Maiatzean | Hala Bedi Rock.** Musika izango da protagonista urtero bezala Gasteizko Gaztetxean antolatutako jaialdian. Bertan, Gasteizko eta Arabako 6 musika talde eta bakarlarik parte hartuko dute. Talde beteterano zein berriak ezagutzeko aukera bikaina. Urtean zehar, Gasteizko Gaztetxearekin elkarlanean antolatutako Muinoko Hotsak kontzertuek ere jarraituko dute muinoko etxean.
- **Ekainean | Hala Bedi Maratoia.** Aurten ere, txosna jarriko du Hala Bedi Judimendi auzoko jaietan. Horretaz gain, egun osoko maratoia antolatuko du ekainaren 23an, Judimendiko Jaieen egun handian. Bertan, irratsaio ezberdinek parte hartuko dute, eta egun osoan zehar halabelarri egiteko zein Hala Bediren materiala eskuratzeko postu bat ere egongo da.
- **Abuztuan | Gasteizko Jaiak.** Abuztuaren 6an, lehen aldiz emititu zuen Hala Bedi irrati libreak 1983. urtean. Aurtengo jaietan, herri mugimenduarekin entxosnatzeaz gain, 35. urtemugaren ospakizun berezia egingo dugu: horretarako, Farolen Prozesioa egingo dugu. Uzten badigute, noski.
- **Urrian | [OkupaTU Gasteiz Eguna](#).** Aurten, urtemuga borobilak ospatzen ditugu Hala Bedi (35), Gasteizko Gaztetxeak (30), Auzolana Pilotalekuak (10) eta Errekaleor Bizirik-ek (5), eta duela 10 urte egin bezala Txorionak dinamikarekin edo Piztu Gasteiz mitikoarekin, elkarlanean ospatuko dugu. Urte osoan zehar egingo diren ekimenetaz gain, urriaren 6an izango da OkupaTU Gasteiz Eguna, urtemuga horiek guztiak ospatzeko egun handia.